

FUNTZIO PUBLIKOAREN SAILBURUORDEAREN 2013KO ABENDUAREN 23KO INSTRUKZIOA, ENPLEGATU PUBLIKOAREN OINARRIZKO ESTATUTUAREN NORBERAREN GAUZAK EGITEKO BAIMENARI BURUZKO 48.K) ARTIKULUAREN ALDAKETAREN APLIKAZIOAK 2013. URTEAN IZANGO DITUEN ONDORIOAK ETA BAIMEN HORREN 2014. URTEKO LUZAPENAZ BALIATZEKO BALDINTZAK EZARTZEN DITUENA.

Sektore publikoaren zor komertziala kontrolatzeko abenduaren 20ko 9/2013 Lege Organikoaren 4. xedapen gehigarriak Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 48.k) artikulua aldatu du, eta honela idatzita geratu da: "Norberaren gauzak egiteko, lau egun urtean". 2013ko abenduaren 21ean argitaratu da, eta hura indarrean sartzearekin batera, behar bezala zehaztu behar dira haren aplikazioak 2013. urtean izango dituen ondorioak eta araudi berriak 2014. urterako eragiten duen norberaren gauzak egiteko baimenaren luzapenaren baldintzak.

Norberaren gauzak egiteko baimena urteko lanalditik kentzen dela kontuan hartuta, baimen hau luzatzeak aldatu egiten du, 2013. urtea amaitzeko egun gutxi falta diren honetan, martxoaren 5eko 173/2013 Dekretuan zehaztutako lantokian bertan egoteko urteko lanaldia; izan ere, Dekretu horren bitartez Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioiko funtzionario, estatutuko eta lan-kontratuko langileen 2013. ekitaldirako urteko lanaldia zehazten da. Instrukzio honen bidez ondorio horren berri ematen da.

Arau hori 2013ko abenduaren 21ean jarri da indarrean, eta beraz, norberaren gauzak egiteko baimenaren luzapena zerbitzu aktiboan dauden langileei bakarrik aplikatu ahal izango zaie, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 48.k) artikuluen aldaketa indarrean sartu eta 2013ko abenduaren 31ra arte. Instrukzio honen bitartez haren kuantifikazioa zehazten da, arestian aipatutako 173/2013 Dekretuan baimen horretarako zehazten denarekin bat etorritz.

Araua indarrean sartu eta 2013. urtearen amaierara arte dagoen denbora-tarte txikiak hainbat zailtasun eragiten ditu baimenaren luzapenaz gozatu ahal izateko, enplegatu publikoarentzat –dagoeneko planifikatu eta eskatu baititu oraindik gozatzeko dituen baimenen datak– nahiz Administrazioarentzat –dagoeneko baimendu baititu langileek eskatutako baimenak, eta beraz, dagoeneko planifikatu eta antolatu ditu baimen horiek eragiten dituzten zerbitzu-premien estaldura–. Zerbitzu publikoen antolamendua errazteko eta langileen bizitza pertsonala, familia eta lana bateragarri egiteko helburuarekin, Instrukzio honen bidez baimenaren luzapenaz gozatu ahal izateko baldintzak zehazten dira; oro har, baimen hori 2015eko urtarrilaren 7ra arte luzatu ahal izango da gehienez ere, eta azken eguna dagozkien Sektore Mahaiak zehaztu beharko dute.

Horregatik, eta Justizia eta Herri Administrazioiko Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen apirilaren 9ko 188/2013 Dekretuaren 15.2.a) eta f)

artikuluetan Funtzio Publikoaren Sailburuordetzari esleitutako eginkizunak betez, honako hau

XEDATZEN DUT:

1.- Helburua.

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren norberaren gauzak egiteko baimenari buruzko 48.k) artikulua 2013. urtean aplikatzeak izango dituen ondorioak eta baimen horren 2014. urteko luzapenez baliatzeko baldintzak –araudi berria ezartzen dira– ezartzea da Instrukzio honen helburua.

2.- Aplikatu beharreko eremua.

Instrukzio honek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Negoziazio Mahai Orokorrean ordezkaritzarik baduten langileengan izango du eragina, eta, zehatzago, ondorengo zerrendan datozen negoziazioko sektore hauetako langileengan:

- Administrazio Orokorreko Funtzionarioak.
- Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko irakasle funtzionarioak.
- Ertzaintzako langileak.
- Osakidetza Euskal Osasun Zerbitzuko langileak.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioko funtzionarioak, aplikagarria zaien araudiaren esparruan.
- Administrazio Orokorreko lan-kontratuko langileak.
- Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko lan-kontratuko irakasle eta hezitzaileak.
- Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko lan-kontratuko langileak.
- Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailari dagozkion erlijio lan-kontratuko langileak.
- Euskal Herriko Poliziaren Ikastegia Erakunde Autonomoko eta Segurtasun Saileko lan-kontratuko langileak.

2.- Instrukzio hau Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean transferitutako edo txertatutako funtzionarioei nahiz lan-kontratuko langileei izango zaie aplikagarria, hau da, Dekretu hau indarrean sartzen denean lehen puntuak adierazten diren langileentzako lan-baldintzak ez diren beste batzuk aplikatzen zaizkienei.

3.- 2013. urteko lanaldia.

3.1. 2013. urterako Instrukzio honen aplikazio-eremuan txertatutako langileen urteko lanaldia martxoaren 5eko 173/2013 Dekretuan zehaztutakoa izango da; Dekretu horren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko funtzionario, estatutuko eta lan-



kontratuko langileek 2013ko ekitaldian izango duten urteko lanaldia ezartzen da, eta hark 2013ko martxoaren 13tik ditu ondorioak, egun horretan jarri baitzen indarrean.

3.2. Lantokian bertan egoteko 2013. urteko lanaldia honako hau izango da: aurreko puntuan zehaztutako urteko lanaldiari norberaren gauzetarako baimena aplikatuzetik ateratzen dena, betiere Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 48.k) artikulua aldaketa aplikatu ostean.

4.- Norberaren gauzak egiteko baimenaren luzapena 2013. urtean aplikatzea.

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 48.k) artikulua aldaketa indarrean sartzen denetik 2013ko abenduaren 31ra arte zerbitzu aktiboan dauden langileek norberaren gauzak egiteko baimenaren beste egun bat gozatzeko eskubidea izango dute 2013. urtean.

Baimen horrek 7 ordu eta 30 minutu izango ditu, urte osoan zehar beren zerbitzuak lanaldi osoan eskaini dituzten langileen kasuan. Baimen hori benetako lanaldi gisa hartuko da eta 3.1 puntuan adierazitako urteko lanalditik kenduko da.

5.- Norberaren gauzak egiteko baimena 2014. urtera luzatu izanaz baliatzea.

Oro har, langileek norberaren gauzak egiteko baimena 2014. urtera luzatu izanaz gozatu ahal izango dute Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 48.k) artikulua aldaketa indarrean sartzen denetik aurrera, betiere lan-baldintzak arautzen dituzten Hitzarmenetan eta aplikagarriak diren Hitzarmen kolektiboetan zehazten diren baldintzetan.

Baimen horretaz baliatzeko azken eguna 2015eko urtarrilaren 7ra arte luzatu ahal izango da, gehienez ere. Muga-egun hori dagozkien Sektore Mahaien esparruan zehaztuko da.

6.- Indarrean jartzea.

2013ko abenduaren 23an jarriko da indarrean Instrukzio hau.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko abenduaren 23a.

Izpta.: Andrés Zearreta Otazua
FUNTZIO PUBLIKOAREN SAILBURUORDEA